

2018an euskal enpresetan langile okupatuek hirugarren aldiz jarraian gora egin dute baina kopurua murriztu egin da

Enpresak nahiko berriak ziren, % 33k bost urte edo gutxiago zituen eta % 16,2k bi urte edo gutxiago

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2018. urtearen hasieran, hainbat jarduera-sektoretako 156.528 enpresa zeuden; aurreko urtean baino 1.558 gutxiago (–% 0,9), Eustaten arabera. Enpresok 173.849 establezimendutan ari ziren (lantegiak, dendak, bulegoak...). Bertan antzeko murrizketa gertatu da (–% 0,9). Hala ere, establezimendu horietako enplegatuen kopuruak, hirugarren urtez jarraian, gora egin du % 1,8.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-jarduerako establezimenduak honela banatuta daude: % 14,1 Araban, % 51,9 Bizkaian eta % 34,0 Gipuzkoan; aurreko urtearen oso antzera. Aurreko urtearen aldean, *Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintza* sektorean establezimenduak gehitu egin dira (% 1,4), baita *Informazioaren eta komunikazioaren* sektorean ere (% 1,4). Aitzitik, *Finantza eta asegurueta* (–% 2,6) eta *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* (–% 2,2) establezimenduak murriztu egin dira.

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2018/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	173.849	-0,9	24.493	-1,5	90.196	-0,8	59.160	-0,8
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	5.962	-0,8	2.157	0,6	1.879	-3,0	1.926	0,1
Industria, energia eta saneamendua	11.526	-1,0	1.991	-0,9	4.960	-0,9	4.575	-1,2
Eraikuntza	20.418	-0,4	2.523	-2,0	10.735	0,7	7.160	-1,4
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	64.562	-2,2	8.566	-2,5	34.523	-2,4	21.473	-1,9
Informazioa eta komunikazioak	3.412	1,4	419	2,7	1.948	1,3	1.045	1,1
Finantza jarduerak eta asegurueta	4.660	-2,6	643	-4,9	2.469	-2,9	1.548	-1,3
Onibar-jarduerak	3.068	0,7	228	7,5	1.831	1,2	1.009	-1,6
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	28.446	-0,4	3.764	-1,8	15.068	-0,5	9.614	0,3
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	18.332	1,4	2.411	0,9	9.832	2,0	6.089	0,7
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	13.463	0,8	1.791	-2,3	6.951	1,2	4.721	1,3

Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Kopuruari dagokionez, establezimendurik gehien, *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* sektoreak izan zituen % 37,1; ondoren, *Jarduera profesional eta lagungarriak* (% 16,4) eta *Eraikuntza* (% 11,7) sektoreak azaltzen dira.

Establezimenduen tamainaren arabera, 2017an, aurreko urtean bezalatsu izan zen. Guztietatik 2.421 establezimenduk soilik (guztien % 1,4k) zeuzkaten 50

langile edo gehiago, pertsona enplegatuen % 40,5 okupatzen zuten arren. Aitzitik, 127.562 establezimendu, ia hiru laurden, ez ziren 3 lanpostutara heltzen eta enplegu guztiaren %18,6 bakarrik hartzen zuten.

Establezimenduen jarduera-adar nagusien arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazio handiena, Euskal Autonomia Erkidegoan, *Industria, energia eta saneamenduaren* sektorean erregistratu da. Euskal Autonomia Erkidegoan establezimenduko batez besteko tamaina 15,6 langile da. Lurraldeen artean Araba nabarmenak da (19,2). Bizkaia 14,1 eta Gipuzkoak 15,4 langile dituzte establezimendu bakoitzeko.

Sexuaren arabera, 2017an Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona enplegatuen % 44,1 emakumeak ziren, aurreko urteko oso antzeko proportzioan (% 44,5). Sektore feminizatuenak hauek izan ziren: *Jarduera sanitarioak eta Gizarte-zerbitzuak* (% 76,5 emakumeak), *Hezkuntza* (% 67,8), *Beste zerbitzu batzuk* (% 66) eta *Ostalaritza* (% 56,4). Aitzitik, *Erauzteko industriak eta Eraikuntza* sektoreetan langile gehienak gizonezkoak dira. Bertan, emakumeak % 10 inguru dira.

ENPRESAK

Enpresen (establezimenduen jardueraren euskarri diren unitate juridikoak) % 97,5ek Euskal Autonomia Erkidegoan zuen egoitza; eta 3.891k Estatuko beste leku batean. 79.118 enpresek, erdiak, Bizkaian zuten egoitza; 52.315ek (% 33,4k) Gipuzkoan; eta 21.204k (% 13,5ek) Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,7 okupatu enpresako, 5,1 establezimendu bakoitzeko. Nortasun juridikoaren analisian, alabaina, badira alde nabarmenak. Nortasun juridikoaren titularra pertsona fisikoa denean, 1,4 enplegutara heldu ziren, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 11,8 eta 9,5 pertsonakoak dira, enpresa eta establezimendu bakoitzeko, hurrenez hurren.

ENPRESA DEMOGRAFIA

Enpresen antzintasunari dagokionez, euskal enpresen artean enpresa berri samarrak aurkitzen ditugula azpimarratu behar dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan ari ziren enpresen % 33k bost urte edo gutxiago zituen; eta bi urte edo gutxiagokoak % 16,2 ziren.

Establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuz, 2017an zehar 13.550 establezimenduk hasi eta 15.094k eten zuten euren jarduera. Beraz, guztizko saldoa 1.544 establezimendu gutxiagokoa izan zen. Txandakatze handiena *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* arloetan eman da (alta guztien % 28,4 eta baja guztien % 33,4); *Eraikuntza* arloan alden % 18,9 eta bajen % 18 eman da; eta *Jarduera profesional eta osagarrien* arloan alden % 18,6 eta bajen % 17,6.

Nortasun juridikoaren arabera demografia aztertzean, pertsona fisikoaren formularen bidez sortutako establezimenduetan gertatzen dena azpimarratu behar. Establezimendu horiek alden % 65,3 eta bajen % 64,6 eragin zuten.

Pertsona enplegatuei dagokionez, pertsona fisikoko forma juridikoa duten establezimenduek establezimendu berrian enplegatutako % 41,3 hartzen dute eta desagertutako establezimendutan enplegatutako % 40,6. Sozietate mugatuak ere

nabarmentzen dira, altan emandako establezimendutan enplegatutako pertsonen % 35,6rekin eta baja emandako establezimenduen % 32,4rekin.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien % 90,2 eta baja guztien % 91,2 erregistratzen du.

Beste aldean, establezimendu handien (50 langile edo gehiago dituztenak) geruzan establezimendu guztien alten zein bajein % 0,1 dira, besterik ez. Aldiz, establezimenduetako pertsona enplegatuen alta guztien % 7,4 eta baja guztien % 8,7 suposatzen dute.

Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2018/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Total	13.550	15.094	Guztira	13.550	15.094
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	450	484	Pertsona fisikoa	8.844	9.758
Industria, energia eta saneamendua	580	731	Akziokako elkartea	230	505
Eraikuntza	2.563	2.713	Elkarte mugatua	3.255	3.572
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	3.843	5.047	Bestelako elkarteak	1.124	1.120
Informazioa eta komunikazioak	428	426	Bestelako forma juridikoak	97	139
Finantza jarduerak eta aseguru-entitateak	289	412			
Onibar-jarduerak	311	310			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.519	2.660			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.491	1.284			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.076	1.027			

Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62